



**EUSKO LEGEBILTZARRA  
PARLAMENTO VASCO**

**Lehendakaritza  
Presidencia**

Excelentísimo señor:

El Pleno del Parlamento Vasco, en la sesión celebrada el día 30 de junio de 2006, ha aprobado la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, con arreglo al texto del anexo adjunto.

Esta Presidencia, conforme a lo que dispone el apartado 5 del artículo 27 del Estatuto de Autonomía del País Vasco, y en ejecución del acuerdo adoptado por el Pleno del Parlamento, le remite la citada ley, a los efectos de su promulgación y publicación en el Boletín Oficial del País Vasco y en el Boletín Oficial del Estado. (08\09\01\00\0001)

Vitoria-Gasteiz, 30 de junio de 2006

Jaun agurgarria:

Eusko Legebiltzarrak, 2006ko ekainaren 30ean egindako osoko bilkuran, ekainaren 30eko 2/2006 Legea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa, onetsi du, eransten den testuaren arabera.

Lehendakaritza honek, Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 27. artikuluko 5. paragrafoak dioenari jarraituz, eta Legebiltzarraren Osoko Bilkurak erabakitakoa betez, lege hori bidaltzen dizu, aldarrikapena egiteko eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko. (08\09\01\00\0001)

Vitoria-Gasteiz, 2006ko ekainaren 30a

Izakun Bilbao Barandica

Excmo. Sr. D. JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU  
Presidente del Gobierno

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU jn. t. g.  
Jaurlaritzako lehendakaria





**EUSKO LEGEBILTZARRA  
PARLAMENTO VASCO**

CARMELO BARRIO BAROJA, SECRETARIO PRIMERO DE LA MESA DEL PARLAMENTO VASCO,

**CERTIFICO**

Que el Pleno del Parlamento Vasco, en la sesión celebrada el día 30 de junio de 2006, ha aprobado la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, con arreglo al texto del anexo adjunto.

Y para que así conste, y en orden a su ejecución, expido la presente certificación con el visto bueno de la presidenta del Parlamento Vasco, en Vitoria-Gasteiz, a 30 de junio de 2006.

Ontzat emana  
EUSKO LEGEBILTZARREKO LEHENDAKARIA  
Visto bueno  
LA PRESIDENTA DEL PARLAMENTO VASCO

Izaskun Bilbao Barandica

NIK, CARMELO BARRIO BAROJAK, EUSKO LEGEBILTZARREKO MAHAIKO LEHEN IDAZKARI NAIZEN HONEK,

**ZIURTATZEN DUT**

Eusko Legebiltzarrak, 2006ko ekainaren 30ean egindako osoko bilkuran, ekainaren 30eko 2/2006 Legea, Lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa, onetsi duela, eransten den testuaren arabera.

Eta horrela jasota geratzeko, eta erabakitakoa bete dadin, ziurtagiri hau egiten dut Eusko Legebiltzarreko lehendakariaren oniritziarekin, Gasteizen, 2006ko ekainaren 30ean.

MAHAIKO LEHEN IDAZKARIA  
EL SECRETARIO PRIMERO DE LA MESA

Carmelo Barrio Baroja





## ANEXO A LA CERTIFICACIÓN

LEY 2/2006, DE 30 DE JUNIO, DE SUELO Y URBANISMO

### EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

I

Desde la asunción de la competencia plena en materia de ordenación territorial y urbanística, tras su constitución, a través del artículo 10.31 de nuestro Estatuto de Autonomía, el Gobierno Vasco ha venido formulando y ejecutando una política propia en materia urbanística, sobre la base y con arreglo a la legislación general sobre régimen del suelo y ordenación urbana. Ello era posible tanto por las características del sistema de ordenación urbanística establecido por ésta, basado en una muy amplia remisión a los instrumentos de planeamiento y de ejecución de éste, como por la ausencia en el marco legal estatal de disposiciones sustantivas de ordenación limitadoras o dificultadoras de las opciones y soluciones específicas demandadas por la realidad propia del País Vasco. En este sentido, es de destacar el importante papel desempeñado por la Ley 17/1994, de 30 de junio, de medidas urgentes en materia de vivienda y de tramitación de los instrumentos de planeamiento y gestión urbanística.

Las consecuencias directas e inmediatas de la Sentencia del Tribunal Constitucional 61/1997, derivadas de las declaraciones de inconstitucionalidad efectuadas por ella, y en particular la nueva composición del ordenamiento estatal de referencia, en la que destaca la recobrada vigencia con carácter meramente supletorio de parte del Texto Refundido de la Ley sobre Régimen del Suelo y Ordenación Urbana aprobado por Real Decreto Legislativo 1346/1976, de 9 de abril, fueron oportuna e inmediatamente abordadas en esta Comunidad Autónoma mediante la elaboración, tramitación y aprobación de la Ley 5/1998, de 6 de marzo, de Medidas urgentes en materia de régimen del suelo y ordenación urbana, y la Ley 11/1998, de 20 de abril, por la que se determina la participación de la comunidad en las plusvalías generadas por la acción urbanística.

En este estado de cosas, la promulgación de la Ley estatal 6/1998, de 13 de abril, de Régimen del Suelo y Valoraciones, ha dispuesto un nuevo marco general que, si formalmente está amparado en el artículo 149.1.1 de la Constitución, contiene una regulación que responde más bien a la pretensión, como expresa su artículo primero, de predeterminar "el contenido básico del derecho de propiedad del suelo", lo que repercute en una delimitación de los campos

## ZIURTAGIAREN ERANSKINA

EKAINAREN 30EKO 2/2006 LEGEA, LURZORUARI ETA HIRIGINTZARI BURUZKOA

### ZIOEN AZALPENA

I

Eusko Jaurlaritzak bere politika propioa bideratu eta egikaritu du hirigintzari dagokionez, Autonomia Estatutuaren 10.31 artikuluari esker sortu ondoren, lurraldea eta hirigintza antolatzeke arloan eskumen osoa eskuratu zuenetik, eta horrela jardun du orain arte, lurzoruaren araubideari eta hirigintzaren antolamenduari buruzko lege orokorretan oinarrituta eta lege horiek errespetatuta. Hori horrela izan zen, batetik, lege horien arabera, hirigintza antolatzeke sistemaren ezaugarriak lagungarri gertatu zirelako, planigintza bideratzeko eta egikartzeko tresnak erabiltzea baitzen gehienbat sistema horren oinarri, eta bestetik, Estatuko lege-esparru horretan ez zegoelako antolamendu-xedapenik Euskal Autonomia Erkidegoaren berezko errealitateak berariaz eskatzen zituen aukerak eta konponbideak mugatu edo eragozten zituenik. Ildo beretik, ekainaren 30eko 17/1994 Legea ere nabarmendu behar da, oso eragin garrantzitsua izan zuelako; hain zuzen ere, lege horren bidez, etxebizitzalorrean presako neurriak hartu eta hirigintza planeatzeko eta kudeatzeko tresnak tramitatu ziren.

Konstituzio Auzitegiaren 61/1997 epaiak zuzeneko ondorioak izan zituen berehalaxe, Konstituzioaren kontrakotzat jo zituelako zenbait puntu, eta, batez ere, Estatuko antolamenduari buruzko lege-kontuak berriz antolatu behar izan zirelako; egoera horretan, berriz ere indarra hartu zuen, nahiz eta lege osagarri hutsa izan, apirilaren 9ko 1346/1976 Lege gintzako Errege Dekretuak onartutako Lurzoruaren Araubideari eta Hiri Antolamenduari buruzko Legearen testu bateginaren zati batek. Abagune horretan, Euskal Autonomia Erkidegoak berehala ekin zion martxoaren 6ko 5/1998 Legea eta apirilaren 20ko 11/1998 Legea egin, tramitatu eta onartzeari; lehenengoak berehalako neurriak ezarri zituen lurzoru-araubidearen eta hirigintza-antolamenduaren arloan, eta, bigarrenak, berriz, hirigintzak sortutako gainbalioetan autonomia-erkidegoek zein partaidetza zuten zehaztu zuen.

Gauzak horrela zeudela, apirilaren 13an 6/1998 Legea aldarrikatu zen (lurzoruaren eta balorzioen erregimenari buruzkoa, Estatu mailakoa), eta horrek beste lege-esparru orokor bat antolatu zuen. Batetik, formaz behintzat, esparru hau Konstituzioaren 149.1.1 artikulua babesean arautu nahi zuen, eta, bestetik, lehendabiziko artikuluan adierazten zenez, "lurzoruaren jabetza-eskubidearen oinarritzko edukia" zein den mugatu nahi zuen; horrek eragin zuzena izan





competenciales estatal y autonómico de perfiles no siempre nítidos y, en consecuencia, discutibles.

Ello no obstante, la Sentencia del Tribunal Constitucional 164/2001, emitida con ocasión del recurso de inconstitucionalidad interpuesto por diferentes comunidades autónomas contra dicha ley, ha venido a clarificar la articulación de los títulos competenciales del Estado y de las comunidades autónomas en materia de urbanismo. Desde este punto de vista, esta ley pretende agotar el marco autonómico deducido de la jurisprudencia constitucional emanada de dicha sentencia, muy especialmente en la consideración de la ordenación urbanística y del desarrollo previo de sus instrumentos como condición del ejercicio de los derechos y las facultades urbanísticas de los propietarios del suelo.

En consecuencia con la jurisprudencia constitucional, el texto de la ley, en aras de la configuración de modelos urbanos sostenibles, recupera con plenitud la categoría de suelo no urbanizable por inadecuación de su desarrollo al modelo urbano definido por la ordenación urbanística. En aplicación de esta misma doctrina, que reconoce la competencia autonómica plena en la configuración de cuáles sean condiciones de desarrollo de las previsiones de la ordenación urbanística en suelo clasificado como urbanizable, se configura el régimen del suelo urbanizable sectorizado como aquel suelo urbanizable previamente delimitado y que incorpore las previsiones del correspondiente programa de actuación urbanizadora.

No se puede dejar de mencionar, por otra parte, la Sentencia del Tribunal Constitucional 54/2002, que concluye con la anulación parcial del artículo 1 de la Ley 11/1998, de 20 de abril, al prever la exigencia de la cesión de aprovechamiento al ayuntamiento en el suelo urbano consolidado, aun cuando dicha cesión versara con carácter exclusivo sobre el incremento y, por lo tanto, la plusvalía urbanística experimentada por el propietario. Así mismo, esta ley define, por mandato de dicha jurisprudencia constitucional, las categorías de suelo urbano consolidado y no consolidado a los efectos de corregir el confuso panorama provocado por esta sentencia.

En cualquier caso, esta situación define un escenario que hace necesaria, oportuna y aconsejable la disposición de un texto legal propio, que responda a la realidad y los problemas de la ordenación territorial y social urbanística vasca y posibilite las respuestas instrumentales adecuadas para satisfacer los objetivos

zuen Estatuaren eta erkidegoen eskumen-arloak zehatz-mehatz banatzerakoan, muga horiek askotan, argiak ez zirenez, eztabaidagarriak izaten baitziren.

Baina, gorago esan bezala, autonomia-erkidego batzuek errekurtsioa aurkeztu zuten lege horren kontra, Konstituzioaren aurkakoa zelakoan, eta Konstituzio Auzitegiak martxoaren 20an eman zuen 61/1997 Epaia; epai horrek argi eta garbi zehaztu zuen nola artikulatu behar diren Estatuaren eta autonomia-erkidegoen eskumen-tituluak hirigintza-arloari dagokionez. Ikuspegi horretatik begiratuta, honako lege honek, lurzoruari dagokionez, autonomia-esparru osoa bete nahi du, hain zuzen ere, aipatutako epai horrek dakarren konstituzio-jurisprudentziak zehaztutako esparru osoa, eta, batez ere, aintzakotzat hartzen du bai hirigintza-antolamendua bai antolamendu horren tresnen aurretiazko garapena ezinbestekoak direla, lurzoruaren jabeek hirigintzari dagokionez dituzten eskubideak eta ahalmenak erabil ahal izan ditzaten.

Konstituzio-jurisprudentziarekin bat etorrita, lege honen testuak, hirigintza-eredu eramangarriak eratu nahian, erabat berreskuratu du sailkatzeko kategoria bat, alegia, lurzoru urbanizaezina; izan ere, urbanizazio-garapena, maiz, ez zaio inola ere egokitzen hirigintza-antolamenduan zehaztutako hirigintza-ereduari. Doktrina horrek berak aitortzen du autonomia-erkidegoak erabateko eskumena duela urbanizagarri modura sailkatutako lurzoruaren hirigintza-antolamenduan agertzen diren aurreikuspenak nola eta zein baldintzatan garatuko diren erabakitzeko orduan, eta, ildo berari jarraituta, arautu behar da ea plangintza-sektoreetan azaldutako lurzoru urbanizagarria zein den; lurzoru urbanizagarria izango, izan ere, aurretiaz mugatuta eta zehaztuta dagoena eta urbanizatzeo jarduketaprograman ezarritakoak jasotzen dituen da.

Horrez gain, ezin aipatu gabe utzi Konstituzio Auzitegiak emandako 54/2002 Epaia; epai horrek deuseztatu egin zuen zati batean apirilaren 20ko 11/1998 Legearen 1. artikulua, eta, hiri-lurzoru finkatuari zegokionez, udalari eman zion aprobetxamendulagapena, nahiz eta aprobetxamendu hori jabeak berak izandako gehikuntzari buruzkoa eta, beraz, hirigintzako gainbalioari buruzkoa izan modu eskuliboa. Era berean, konstituzio-jurisprudentzia horrek halaxe aginduta, lege honek ondo zehazten ditu hiri-lur finkatuen eta hiri-lur finkatugabeen kategoriak, gorago aipatutako epai horrek sortutako egoera nahasgarria argitzearen.

Era batera zein bestera dela ere, egoera honek erakusten digu gure lege-testu propioa eskuragarri izatea beharrezkoa, egokia eta komenigarria dela. Zertarako? Batetik, lurralde eta gizarte aldeko euskal hirigintza-antolamenduak dituen arazoak konpontzeko eta errealitate horri erantzuteko, eta bestetik, lurraldearen





de vertebración territorial, ordenación urbana y cohesión social que los artículos 45, 46 y 47 de la Constitución definen como principios rectores en esta materia.

En consecuencia, el presente texto legal se encuadra dentro de las siguientes coordenadas:

1. Desarrollo pleno de la competencia legislativa propia, con ocupación de la totalidad del espacio que le corresponde conforme a la Sentencia del Tribunal Constitucional 61/1997, de 20 de marzo, y teniendo en cuenta la regulación contenida en la Ley 6/1998, de 13 de abril, de Régimen del Suelo y Valoraciones, en cuanto marco extraurbanístico de referencia.

Por ello, esta ley sólo aborda cuestiones propias de la competencia autonómica, pero todas ellas con pretensión de establecer un ordenamiento completo. De ahí que, en los inevitables puntos de contacto con materias propias de la legislación estatal, contenga únicamente disposiciones secundarias y en algunos casos accesorias, cual sucede significativamente en punto, entre otros, a la materia de registros, a la aplicación urbanística de determinadas figuras del derecho civil y a la expropiación forzosa, dando por supuesto, además, la regulación general del régimen jurídico de ésta y el procedimiento administrativo común.

2. Establecimiento de un conjunto articulado de instrumentos y técnicas de ordenación urbanística en orden a servir básicamente a los entes municipales como herramienta, por una parte, que consolide el funcionamiento correcto de la práctica urbanística municipal, y, por otra parte, que dote a los mismos de un marco de seguridad jurídica estable e integrado a los efectos, entre otros, de atajar las prácticas urbanísticas problemáticas y disconformes con el interés general detectadas por las administraciones públicas a lo largo de estos años.

II

Desde una visión sosegada de la situación del urbanismo en la Comunidad Autónoma del País Vasco, al margen de la dispersión normativa anteriormente apuntada, tenemos que destacar problemas, algunos con carácter urgente, que no se pueden pasar por alto a la hora de establecer un sistema urbanístico ar-

bizkarrezurra osatu, hirigintza antolatu eta gizartea kohezionatzeko helburuak betetze aldera behar diren moduko tresnak eskaini eta erantzun egokiak emateko, Konstituzioaren 45, 46 eta 47. artikuluen arabera horietatik baitira arlo honetako printzipio gidariak.

Horrenbestez, labur esanda, lege-testu honek nondik nora jo behar duen jakiteko, koordenatu hauek jarri dira:

1. Legegintzan dugun eskumen propioa erabat garatu behar da, horretarako, Konstituzio Auzitegiak martxoaren 20an emandako 61/1997 Epaiaaren arabera eskumenari dagokion esparru oso-osoa eskuratuko da, eta lurzorua eta balorazioen erregimenari buruz apirilaren 13an onartutako 6/1998 Legearen arauak hartuko dira kontuan, hirigintzaz kanpoko erreferentzia-esparru diren aldetik.

Ilido beretik, lege honek eskumen autonomikoei dagozkien gaiak hartzen ditu bakar-bakarrik, baina, gai horien bitartez, hirigintza-antolamendu oso-osoa ezarri nahi dugu. Beraz, zenbaitean, Estatuko legee dagozkien gaiak eta lege honetakoak ezinbestean leku berean elkartzen direnean, hauek bigarren mailako xedapen bihurtuko dira besterik gabe, eta, beste zenbaitean, osagarri ere izango dira; horixe gertatzen da argi eta garbi, besteak beste, erregistroei dagokionez, zuzenbide zibileko figura batzuen hirigintza-aplikazioari dagokionez eta nahitaezko desjabetzeari dagokionez. Esan gabe doa, gainera, erregimen juridikoaren araubide orokorra eta administrazio-prozedura erkidea ere errespetatu behar direla.

2. Hirigintza ordenatzeko tresnak eta teknikak hartu, artikulatu eta eskaini behar dizkiegu, batez ere udalei, tresna hori izan dezaten erabilgarri, batetik, udalek hirigintza-arloan darabilten jardun hori egokia eta zuzena izateko eta bestetik, udalei segurtasun-esparru juridiko egonkor eta integratua emateko, era horretara lortu nahi baita, besteak beste, azken urteotan herri-administrazioek antzeman dituzten hirigintza-jokaera batzuk desagerraraztea, alegia, arazoak dakartzaten edo guztion interesen aurkakoak diren jarduketak baztertea.

II

Hirigintzak Euskal Autonomia Erkidegoan duen goerari lasai begiratzen badiogu, ikusiko dugu, gorrigo aipatutako arau-nahasmenaz gainera, beste arazo batzuk ere badirela, eta horietako batzuk premia handikoak direla gainera. Hirigintza-sistema bat ezar-terakoan oso kontuan hartu behar dira arazo horiek,





mónico con la situación socioeconómica de nuestro país y las estrategias y políticas públicas establecidas al efecto.

1) En materia de política de vivienda:

Los altos precios de la vivienda y la escasez crónica de suelo del país hacen más necesario que nunca el fomento de un importante volumen de vivienda protegida, que por la capacidad adquisitiva de importantes capas de población, y sobre todo población joven, es la única vivienda que se adapta en precio a sus necesidades. Una política de vivienda con enfoque social sólo puede pasar por el incremento significativo de esta oferta de vivienda protegida.

Sin embargo, y a pesar de ser actualmente la comunidad autónoma con más cuota de mercado de vivienda protegida de todo el Estado (30 % en el promedio entre los años 2002-2005), la oferta de vivienda se torna claramente insuficiente en volumen para satisfacer la demanda de vivienda protegida registrada en la Comunidad Autónoma. Por otra parte, dicha oferta se obtiene de forma desequilibrada, toda vez que la obligación legal de reserva de suelos para estos usos se circunscribe actualmente sólo a determinados municipios, mientras los suelos óptimos para la acogida de este tipo de desarrollos se sitúan en otros municipios próximos y funcionalmente vinculados pero no obligados a reservar.

A partir de estas consideraciones, la ley dispone un nuevo marco que pasa tanto por una extensión general de la obligación de los municipios de reservar suelo para este uso residencial de carácter protegido, o por el establecimiento con carácter novedoso de figuras equipamentales de alojamientos de uso temporal, como por extender el régimen jurídico de la vivienda protegida hacia otras figuras municipales de viviendas protegidas, configurando así un marco jurídico de protección pública frente al tradicional marco exclusivo de protección oficial. Ello contribuye a configurar también un marco de corresponsabilidad institucional del Gobierno Vasco y de los ayuntamientos en materia de vivienda protegida.

2) En materia de política de medio ambiente:

Una vez aprobado el Programa Marco Ambiental para la Comunidad Autónoma del País Vasco, en él se señalan una serie de estrategias encaminadas a abordar problemáticas diversas. En concreto, en relación con la materia urbanística conviene resaltar los siguientes puntos:

1. La tendencia a la extensión de la práctica urba-

sistema hori gure herriko egoera sozioekonomikoarekin eta aurretiaz prestatutako estrategia eta politika publikoekin ondo uztartu dadin.

1) Etxebizitza-politikari dagokionez

Etxebizitzak gero eta garestiago daude, eta herri honetan lur-eskasia dago betidanik; horrek, beraz, inoiz baino beharrezkoago egiten du, etxebizitza babestuen kopuru handiak egin daitezen sustatzea, populazioaren oso talde zabaletan, eta batez ere gazte-jendearen artean, zer-nolako erosmen-ahalmena dagoen erreparatuta, era horretako etxebizitza baita beren beharrezanez egokitzen den bakarra prezioz. Etxebizitzaren politikak, ikuspegi sozial batetik lan egin nahi badu, etxebizitza babestuen eskaintza handitu behar du nabarmen; ez dago beste biderik.

Baina gure Autonomia Erkidegoak gaur egun Estatu osoan etxebizitza babestuen merkatu-kuotarik handiena duen arren (% 30 batez beste, 2002-2005 aldian), etxebizitzaren eskaintza, argi eta garbi gainera, ez da nahikoa inola ere, Euskal Autonomia Erkidegoan etxebizitza babestuen eske dabilen jende-kopuruari erreparatuta. Gainera, etxebizitzaren eskaintza hori ez da leku guztietan berdina izaten, erabilera horretarako lurzorua gordetzeko eginbeharra, legez, udal jakin batzuei bakarrik dagokielako gaur egunean. Era horretako etxeak eraikitzeko lurzorurik aproposenak, ordea, beste udal batzuetan egoten dira, eta, udal horiek hurbil egonda eta funtzionalki lotura izanda ere, ez dute lurrik erreserbatu beharrik.

Gogoeta horiek kontuan izanda, legeak esparru berri bat xedatzen du: alde batetik, udal guztietara zabaltzen du bizitegi-erabilerarako lurzorua gorde beharra eta zuzkidura-figura berriak ezartzen ditu aldi baterako bizitokirako, eta beste alde batetik, etxebizitza babestuen araubide juridikoa etxebizitza babestuen beste udal-figura batzuetara ere hedatzen du, era horretarako babes publikoko esparru juridiko bat eratuz, orain arte ohikoa eta bakarra izan den babes ofizialeko esparruaren orde. Ondorioz, erantzukizun instituzional partekatuko esparru bat ere eratzen da Eusko Jaurlaritzaren eta udalen artean etxebizitza babestuen arloan.

2) Ingurumen-politikari dagokionez

Onartuta dago dagoeneko ingurumenari buruzko Euskal Autonomia Erkidegoko esparru-programa, eta hor azaltzen dira arazo batzuk konpontzeko estrategiak. Hirigintza-arloari lotuta, honako puntu hauexek azpimarratuko ditugu zehatzago:

1. Hirigintza hazten ari da etengabe, eta joera





nística de crecimiento urbano en desarrollos es-  
ponjados y en baja densidad, en una comuni-  
dad autónoma que carece de suelo apto para  
urbanizar en grandes partes de su territorio, nos  
lleva a la conclusión de que dicho modelo debe  
ser revisado en profundidad y con carácter ur-  
gente, porque el territorio de la Comunidad Au-  
tónoma no dispone de capacidad de acogida  
suficiente para soportar tal urbanización. Por  
eso se impone en esta ley, con carácter nove-  
doso, una utilización racional e intensiva del  
suelo, a través del señalamiento con carácter  
general de una edificabilidad mínima y de una  
ocupación mínima de la edificación respecto a  
la superficie total de los respectivos ámbitos de  
ordenación. Se trata de evitar en la mayor me-  
dida posible la extensión de la "cultura de la vi-  
vienda unifamiliar y del adosado" y los creci-  
mientos dispersos, que, además de consumir  
gran cantidad de territorio, recurso siempre es-  
caso y de carácter no renovable, generan mo-  
delos urbanos poco funcionales y, por lo tanto,  
poco sostenibles.

2. La ley muestra también una especial atención  
en relación con la correcta preservación y uso  
racional del suelo no urbanizable. Prueba de  
ello es la recuperación de la categoría del suelo  
no urbanizable, así clasificado por la inconve-  
niencia de su desarrollo, el régimen jurídico res-  
trictivo en materia de reconstrucción de caseríos  
en dichos suelos así clasificados, y la protección  
de los denominados núcleos rurales, cuyo suelo  
se mantiene en la categoría del suelo no urba-  
nizable y cuyos crecimientos se restringen, con  
el objeto de preservarlos en su carácter históri-  
co y económico, agrario y pecuario. Así mismo,  
se establecen mayores limitaciones jurídicas pa-  
ra la instalación de viviendas ligadas a explota-  
ciones hortícolas y ganaderas en suelo no urba-  
nizable.

3) En materia de políticas de fomento para im-  
plantación de actividades y usos lucrativos protegidos  
por la ley:

Las administraciones públicas, especialmente  
ante el estrepitoso fracaso de la estrategia de liberali-  
zación del suelo y el espectacular incremento que ha  
supuesto en sus precios, han visto comprometida muy  
seriamente la posibilidad económica de obtener suelo  
a precios asequibles para realizar políticas de fomento  
en la implantación de determinados usos lucr ativos de  
interés general, tanto para viviendas sometidas a al-  
gún régimen de protección como para el fomento de  
la primera implantación de actividades económicas de  
nueva creación amparadas por programas públicos de

hori, dentsitate txikian eta belaki antzera gara-  
zen ari dela, gero eta zabalduagoa da; Auto-  
nomia Erkidego honek, bere lurraldeko inguru  
zabal askotan, ez du urbanizatzeko moduko lur-  
zoru nahikorik, eta, orduan, ondorio hau atera  
behar dugu, alegia, eredu hori berriz aztertu be-  
har dela, sakon eta premiaz, Euskal Autonomia  
Erkidegoko lurraldeak ez duelako urbanizazio-  
maila horri eusteko besteko gaitasunik. Legeak  
horrexegatik ezarri du, bide berriak urrututa, lur-  
zorua zentzuz eta intentsitatez erabiltzeko joera,  
eta, aldi berean, zehatz finkatu ditu, izaera oro-  
korra emanda, kasuan kasuko antolamendu-  
eremuen lurrazal osoarekiko eraikigarritasun  
minimoa eta eraikuntzaren okupazio minimoa.  
Azken batean, "familia bakarreko etxeak eta  
eraikin adosatua" eta etxe sakabanatuak erai-  
kitzeko kultura hori ahal den neurrian gehiago  
ez zabaltzea lortu nahi dugu, eraikitzeko modu  
horrek lurralde-zati handiak hartzen dituelako  
(eta lurra ondasun urria da, eta ezin da berritu)  
eta, gainera, sortzen diren hiri-ereduak ez dire-  
lako ez funtzionalak, ezta, beraz, eramangarriak  
ere.

2. Legeak, aurrekoaz gain, modu berezian egiten  
dion kontu urbanizatzeak ez den lurzorua egoki-  
ro artatu eta zentzuz erabiltzeko ahaleginari.  
Horren erakusgarri, urbanizazioa garatzea kal-  
tegarri denerako, lorzoru urbanizaezinen kate-  
goria berreskuratu da; gero, horrela sailkatuta  
dauden lurretan baserriak berreraikitzeak arau-  
bide juridiko murriztua ere jarri da martxan; eta,  
oro har, baserri-inguru horiek babestuko dira.  
Labur esanda, lur horrek lurzoru urbanizaezinen  
kategoria dauka, eta bertan eraikuntza murriztu-  
ta dago, baserri-inguru horiek nekazaritza eta  
abelazkuntza, historia eta ekonomia aldetik du-  
ten garrantzia jagotearren. Halaber, muga juri-  
diko handiagoak jarri dira lurzoru urbanizaezi-  
nean baratzezaintza eta abelazkuntzako ustia-  
kuntza bati lotutako etxebizitzak eraikitzeak.

3) Legeak babestutako irabaziko jardunak eta  
erabilerak ezartzeko sustapen-politikei dagokienez

Administrazio publikoek, batez ere lurzoruaren  
liberalizazio-estrategiak sekulako porrota ekarri due-  
lako, eta horrek eraginda etxebizitzaren prezioak izugarri  
igo direlako, oso estualdi handian jarri dute beren lu-  
rria orain oso zaila baitute erosteko moduko lurra es-  
kuratzea, interes orokorreko aprobetxamenduzko era-  
bilera batzuk ezartzeko sustapen-politikei dagokien-  
ez, bai babes-araubideren bati atxikita dauden etxe-  
bizitzari dagokienez, bai sustapen-programa publikoz  
lagunduta sortu berri diren jardura ekonomikoak le-  
hen aldiz ezartzeko sustapen-lanari dagokionez. Gaur







fomento. En estos momentos las administraciones públicas o sus sociedades de desarrollo se ven obligadas a competir con los agentes privados a los precios del suelo marcados por el libre mercado en el ejercicio de competencias sectoriales de fomento.

Sólo rompiendo radicalmente con las fórmulas heredadas desde el pasado, combatiendo los capitales especulativos y favoreciendo las inversiones productivas puede intentarse atender las necesidades de nuestra sociedad en la demanda de suelo dentro de un marco de desarrollo sostenible. Se hace necesario reconocer que el papel oligopólico reconocido a la propiedad del suelo en el urbanismo, junto con el papel de inhibición desempeñado por las administraciones públicas, son dos factores que requieren así mismo de una urgente revisión.

Hasta el momento, la legislación ha separado, a efectos de su gestión urbanística, los usos lucrativos de los usos públicos y dotacionales en los desarrollos urbanos. De esta forma, la obtención de todos los usos lucrativos correspondía en exclusiva al propietario de los suelos originales, y la administración pública se limitaba a percibir del propietario, libres de cargas, al margen del porcentaje correspondiente a su participación en el ámbito de actuación, los terrenos de uso dotacional y las obras de urbanización con destino ambos al uso de la colectividad, por entender que el interés público se concretaba con carácter exclusivo en dichos suelos.

Ello no obstante, desde la introducción en los planes urbanísticos de una reserva obligatoria de suelo para la construcción de viviendas de protección oficial en determinados municipios de la Comunidad Autónoma del País Vasco, se ha venido constatando que el interés público excede de la exclusiva obtención de los suelos de uso no lucrativo, concretándose también dicho interés en la obtención de determinados suelos para la implantación de usos de carácter lucrativo y al servicio del interés general. En este caso hablamos de suelos para la realización de políticas de fomento en materia de vivienda protegida. Esta consideración determina que sobre cualquier desarrollo urbanístico exista entonces una legitimación concurrente entre los intereses privados y los públicos.

A todo ello hay que añadir que el agotamiento del suelo y la colmatación de los modelos urbanos en los principales núcleos de población de nuestro país hacen imprescindible que las administraciones públicas –actuando estas como garantes del desarrollo económico sostenible y sostenido de un determinado municipio, comarca o territorio– se impliquen activamente en la obtención, mantenimiento y desarrollo urbanístico de dichos suelos.

egun, administrazio publikoek edo beren garapen-baltzuek eragile pribatuen aurka dihardute elkarren behian, eta, are gehiago, merkatu libreak finkatzen dituen lurzoru-prezioak oinarri hartuta, sektoreetako sustapen-lehiaketaren barruan.

Iraganetik datozkigun jardun-moduak sustraitik hautsita, kapital espekulatzailen aurka borroka eginda eta inbertsio produktiboen alde lan eginda, horrela bakarrik egongo gara, garapen eramangarriari helduta, gure gizarteak lur-kontuetan dituen beharrizanez erantzuten hasteko moduan. Hirigintzan lurraren jabetzari zeregin oligopolikoa aitortu izan zaio, eta herri-administrazioek, bestetik, inhibizio-papera izan dute, eta egoera horiek berehala berrikusi beharrekoak direla aitortu beharra dago.

Orain arte, legeriak, hirigintzako kudeaketari dagokionez, aprobetxamenduzko erabilera eta dotaziozkoak bereiztu izan ditu hiri-garapenean. Horren ondorioz, aprobetxamenduzko erabilera guztiak lurzoruen hasierako jabearenak izaten ziren, eta administrazio publikoak, soil-soilik, dotaziozko erabilera zuten lursailak eta urbanizazio-obrak bereganatzen zituen jabearengandik, biak ala biak herritar guztiak erabiltzekoak, hain zuzen ere interes publikoa bakar-bakarrik lurzoru horiei zegokien kontua zela ulertzen zelako. Bestalde, jabeak kargarik gabe eman behar zituen lursailak eta urbanizazio-obrak, baina bazegokion ehuneko jakin bat ere dena delako jarduera-eremuan zuten parte-hartzeagatik.

Hori hala izanik ere, hirigintzako planetan Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrri jakin batzuetan babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko lurzorua derrigorrez gorde behar dela erabaki denetik, ikusi ahal izan da interes publikoa diogunean ez garela soilik aprobetxamendurik gabeko erabileretarako lurzoruak edukitzeari buruz ari; izan ere, irabazteko asmoa izan eta interes orokorraren mesederako izango diren erabileretarako ere gorde behar baita lurzorua. Kasu honetan, etxebizitza babestuak sustatzeko politikak aurrera eramanez ahal izateko lurzoruari buruz ari gara. Ikuspegi hori kontuan izateak hirigintzako edozein ekintza aurrera eramaterakoan interes pribatu eta publikoen artean legitimazio konkurrentea dagoela adierazten du.

Esandako guztiaz gainera, kontuan izan behar da gure Autonomia Erkidegoko biztanle-gune nagusietan gero eta lurzoru gutxiago dagoela eta hiri-eredua goia jota dagoela, eta horren ondorioz, ezinbestekoa da administrazio publikoek modu aktiboan parte hartzea lurzoru horiek eskuratu, mantendu eta horien hirigintzako garapena bideratzeko, kontuan izan behar baita administrazio publikoek izan beharko dutela udalerrri, eskualde edo lurralde bateko ekono-







Plenamente consciente de esta situación, y siguiendo el modelo urbanístico de tradición anglosajona, la ley establece la posibilidad para las administraciones públicas de obtener y preservar la titularidad dominical de dichos suelos calificados para la implantación de usos declarados protegidos por esta ley. Dicha obtención se articula a través de la consideración dotacional, y por tanto de cesión gratuita a favor de la Administración, del derecho superficiante de los suelos y parcelas destinados a la implantación de vivienda protegida así calificados por la ordenación urbanística, sometiendo estos suelos a un régimen jurídico diferenciado en función de la especificidad de su destino. Así mismo, con este mismo fin, se habilita la mayor participación pública en los procesos de reparcelación sobre la base de su configuración forzosa e impuesta, por tanto, a los propietarios de suelo.

4) En materia de políticas de rehabilitación y regeneración urbana:

En línea con las diferentes políticas y programas del Gobierno Vasco en esta materia, que reclaman una atención específica para estas zonas necesitadas de especial de apoyo y de medidas de discriminación positiva, la ley incorpora una serie de instrumentos de gestión urbanística para posibilitar la acción eficaz de las administraciones públicas.

De esta forma, al apoyo financiero se le suma la dotación a las administraciones públicas de instrumentos para obtener más eficacia en la gestión de estas intervenciones urbanísticas. Entre ellos destaca la habilitación a las administraciones públicas de un derecho preferencial de tanteo para la ejecución de las previsiones del planeamiento urbanístico sobre determinados barrios o zonas con objeto de fomentar su rehabilitación o reforma urbana, así como la flexibilidad en el uso de la tradicional figura de la delimitación autónoma de unidades de ejecución en suelo urbano.

### III

Los objetivos que esta ley se propone alcanzar, además de los ya comentados, son esquemáticamente los siguientes:

1. Recuperación de la iniciativa pública en las actividades urbanísticas, especialmente a través de la iniciativa municipal. El urbanismo se configura como una función pública municipal al servicio del interés general, y no como la "forma de adquisición privada de las plusvalías urba-

miaren garapen eramangarria bermatu beharko dutenak.

Egoera zein den oso garbi ikusten denez, tradizio anglosaxoiko hirigintzako ereduari jarraituz, legeak administrazio publikoen eskuetan utzi du kalifikatutako lurzoru horien jabetza eskuratzeko eta gordetzeko aukera, lege honetan babestutakotzat jotako erabilerak aurrera eramateko. Lurzorua eskuratzeko modu hori dotazioen bidetik gauzatu da, eta, beraz, hirigintzaren antolamenduan babestutako etxebizitzak egiteko kalifikatuta dauden lurzoruen lurrazal-eskubidea administrazioari dohainik lagatzea dakar horrek. Ondorioz, lurzoru horiek araubide juridiko ezberdina izango dute, emango zaien erabileraren ezaugarrien arabera. Halaber, helburu berarekin, aukera ematen da partaidetza publikorik handiena izateko birpartzelazio-prozesuetan, birpartzelazioa nahitaezko bihurturik eta, beraz, lurzorua erabiltzeko aukera ere eskaintzen da.

4) Hiriak eta herriak biziberritzeko eta berronertzeko politikei dagokienez

Eusko Jurlaritzak arlo honetan dituen politika eta programen ildotik, kontuan izanda arreta eta laguntza berezia eskaini behar zaiela bereizketa positiboko neurrien bidez, legeak hirigintzaren kudeaketan laguntzeko tresna batzuk zehaztu ditu, administrazio publikoen jarduna eraginkorra izatea ahalbidetzeko.

Era horretan jardunda, finantza arloko laguntza emateaz gainera, lege honen bidez administrazio publikoei beste tresna batzuk ere emango zaizkie, hirigintzako jarduerak kudeatzerakoan eraginkortasun handiagoa lortzeko. Tresna horien artean, azpimarratzekoa da administrazio publikoek lehentasunez erosteko eskubidea izango dutela auzo edo gune jakin batzuetan, hirigintzako plangintzako aurreikuspen jakin batzuk egikaritu ahal izateko, betiere auzo edo gune horiek leheneratu edo berroneratu nahi badira; horrekin batera, hiri-lurzoruan egikaritze-unitateak modu autonomoan mugatzeko bide tradizionala modu malguagoan erabiltzeko aukera ere eskaintzen da.

### III

Lege honen bidez lortu nahi diren helburuak, gorago aipatutakoez gainera, ondorengoak ere badira, labur esanda:

1. Hirigintzako jardueretan arlo publikoak izan beharreko ekimena berreskuratzea, batez ere udalen ekimenaren bidez. Hirigintza, hain zuzen, interes orokorraren alde diharduen funtzio publikoa izango da, eta ez "hirigintzaren arloan sortzen diren gainbalioak esku pribatuek lortze-





nísticas". Para ello, se refuerzan los instrumentos en manos de las administraciones públicas para el control de la ordenación y de la ejecución urbanística por parte de la iniciativa privada, sobre todo a través de programas de actuación urbanizadora y programas de edificación previstos en la ley.

2. Interdicción de las prácticas especulativas de carácter inmobiliario a través de las siguientes disposiciones:
  - a) Flexibilidad en la gestión de la ordenación urbanística. Se separan definitivamente los conceptos de ordenación estructural y ordenación pormenorizada, con independencia del documento en que se encuentren, a los efectos de optimizar la gestión de dichos documentos de planificación urbanística. Por otra parte, se amplía la competencia de los ayuntamientos, evitando en muchos casos reenvíos a las diputaciones forales y el alargamiento de los plazos en la tramitación de documentos.
  - b) Efectividad de los instrumentos de gestión y ejecución urbanísticos. La ordenación urbanística se conceptúa como la organización del espacio, como ha venido siendo tradicional, a la que se añade la organización también de los tiempos y plazos de ejecución de sus determinaciones. El cumplimiento de dichos plazos de ejecución –tanto de la urbanización como de la edificación– se configura como componente del interés público al que queda sometida toda la ordenación urbanística. Así, el monopolio del interés privado cede ante el interés público de desarrollo de la ordenación en forma y plazo, de manera que se permite el acceso, por ministerio de la ley, de la Administración y de terceros privados para la sustitución del propietario en el caso de incumplimiento de sus obligaciones urbanísticas en materia de urbanización, edificación y rehabilitación. En consecuencia, la Ley configura las actuaciones de urbanización integradas como responsabilidad de las Administraciones Públicas.
3. Aseguramiento de los derechos constitucionales del ciudadano al acceso a una vivienda digna y adecuada, a su desarrollo personal y a la calidad del medio urbano y natural en el que se

ko bidea". Horretarako, administrazio publikoen eskuetan dauden tresnak sendotu egin dira, ekimen pribatuak hirigintzaren antolamenduan eta egikaritzean egiten duena kontrolatzeko. Esandakoa lortzeko, batez ere urbanizatzeko jarduketaprogramak eta eraikitzeko programak aurreikusi dira legean.

2. Ondasun higiezinekin zerikusia duten jarduera espekulatuzaileak debekatzea, ondorengo xedapenen bidez:
  - a) Hirigintzako antolamendua kudeatzean malgutasunez aritzea. Antolamendua xehatua eta egiturazko antolamendua kontzeptuak bereizi egin dira behin betiko, horiek jasotzen dituen dokumentua dena delakoa izanik ere, eta horren bidez, hirigintzako plangintzako agiri horiek kudeatzeko modua hobetu nahi da. Udalen eskumenak areagotu egin dira; horri esker, kasu askotan agiriak berriz ere foraldundietara bidali behar izatea saihestu da, eta horrek dokumentuak izapidetzeko epeak gehiago ez luzatzea ekarri du.
  - b) Hirigintzan kudeatu eta egikaritzeko dauden tresnak efektiboak izatea. Hirigintzako antolamendua, hain zuzen, espazioa antolatzeko bidea izango da, orain arte gertatu izan den moduan, baina horrekin batera, hartutako erabakiak egikaritzeko dagoen denbora eta epeak ere antolatuko dira. Egikaritzeko dauden epe horiek betetzea –bai urbanizatzeko lanak egitean bai eraikuntzakoak egitean– interes publikoko osagai bihurtu dira, eta horren eraginpean geratuko da hirigintzako antolamendua osoa. Horrela jardunda, interes pribatuak duen monopolioak garapenerako interes publikoaren aurrean amore eman beharra izango du, antolamenduan zehaztuta dauden modu eta epeen arabera, eta horri esker eta legeak agintzen duenaren arabera, administrazioak eta beste esku pribatu batzuek esku hartzeko modua izango dute, jabeak zituen eginbehar urbanistiko pribatuak bete ez baldin badira urbanizazio, eraikuntza edo birgaitzearen arloan. Horren ondorioz, urbanizatzeko jarduketak integratuak administrazio publikoen erantzukizunaren barruan sartu ditu legeak.
3. Konstituzioak herritarrei aitortzen dizkien ondorengo eskubideak gauzatuko direla ziurtatzea: etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, pertsona gisa garatzeko eskubidea, eta bizileku





desenvuelve.

4. Introducción de nuevos mecanismos de intervención administrativa de las administraciones públicas en el mercado del suelo e inmobiliario. Así, se recupera la regulación de los ámbitos sometidos a los derechos de tanteo y retracto para operaciones de regeneración y rehabilitación urbana y para la constitución de patrimonios públicos de suelo.

La figura de los patrimonios públicos de suelo, ya presentes en nuestra legislación urbanística a través de la Ley 20/1998, de 29 de junio, se consolida al mismo tiempo que adquiere una relevancia especial como soporte económico del sistema de obtención de los suelos para usos lucrativos de interés general.

5. Orientación del urbanismo hacia el principio de desarrollo sostenible aplicado a los modelos urbanos a través de su relación con el medio ambiente y la preservación del patrimonio histórico, artístico y cultural de los pueblos y ciudades.
6. Garantía del derecho a la participación ciudadana a través de la figura de los programas de participación ciudadana obligatorios en los planes de ordenación estructural y del Consejo Asesor del Planeamiento obligatorio en determinados municipios. Ello se suma al derecho a la información urbanística a través del aseguramiento de la integridad y de la coherencia del planeamiento urbanístico municipal respecto a los instrumentos de ordenación territorial y sectorial.

#### IV

La ley se estructura en seis títulos, siguiendo el esquema legislativo ya tradicional.

El título I aborda las definiciones básicas en materia de urbanismo y los principios ordenadores de toda su regulación, que pretenden ser al mismo tiempo criterios de su interpretación. El orden de situación de los respectivos títulos obedece a la lógica de su interpretación, y no tanto al orden tradicional establecido por otras legislaciones en la materia.

Establece el título I de la norma los principios generales de la ley, entre los que obviamente se encuentra el de subordinación al interés público de toda la actuación administrativa y particular en materia de

duen hiri- edo herri-ingurunea eta ingurune naturala kalitatezkoa izateko eskubidea.

4. Administrazio publikoek lurzorua eta higiezi-merkatuan esku hartzeko tresna berriak sortu eta erabiltzea. Hori horrela izanik, lehentasunez erosteko eskubideari eta atzera eskuratzeko eskubideari atxikita dauden eremuak arautzeko aukera berreskuratu da, hiria leheneratzeko eta birgaitzeko lanak egin behar direnerako eta lor-zoruz osatutako ondare publikoak eratzeke.

Lurzoru-ondare publikoak lehenagotik ere ageri dira gure hirigintzako legerian, hain zuzen ekainaren 29ko 20/1998 Legean, eta orain, sendotu egin da aukera hori, garrantzi berezia hartzeaz gainera, interes orokorreko aprobetxamenduzko erabileretarako lurzoruak eskuratzeko sistemari euskarri ekonomikoa eskaintzen baitio.

5. Hirigintzak garapen eramangarriaren printzipioaren aldeko norabidea hartzea. Eta hori hiri-ereduetan gauzatuko da, ingurumenarekin duten lotura kontuan izanda eta historia, arte eta kulturaren arloko ondarea babesturik.
6. Herritarrek parte hartzeko duten eskubidea bermatzea, herritarrek parte hartzeko programen figuraren bidez –nahitaezkoak izango dira egitura-antolamenduko planetan– eta Plangintzako Aholku Batzordearen bidez –nahitaezkoa izango da udalerrri batzuetan–. Horrez gainera, hirigintzaren inguruko informazioa jasotzeko duten eskubidea bermatzea, udaleko hirigintza-plangintza lurralde-antolamenduko eta arloko antolamenduko tresnekin koherentea dela ziurtatzearen bidez.

#### IV

Legea sei titulutan egituratzen da, ohikoa den lege-ereduarekin bat.

Hala, I. tituluak, zehazki, hirigintzari dagozkion oinarritzko definizioak eta arlo horren araubide osoaren printzipio arautzaileak jorratzen ditu; printzipiook, aldi berean, interpretaziorako irizpide ere izan nahi dute. Tituluen hurrenkera beren interpretazioaren logikaren arabera da, eta ez beste legeria batzuek gai honetan ezarri izan duten ohiko hurrenkeraren arabera.

Arauko I. tituluak legearen printzipio orokorrak ezartzen ditu. Horien artean, jakina, hirigintzaren arloan administrazioak zein partikularrek burutzen duten jardun osoa interes publikoaren mendean jartzea da-





urbanismo, lo que implicará el pleno control de su existencia en sede judicial mediante la acción pública también reconocida, la garantía de sostenibilidad ambiental de toda la acción de transformación y utilización del suelo, y la garantía de la participación ciudadana.

Igualmente se establece en dicho título la relevancia y centralidad, precisamente también a dichos efectos de garantizar el derecho de información de los ciudadanos sobre el planeamiento urbanístico municipal. A pesar del reconocimiento de la importancia y la prevalencia del planeamiento territorial, en ningún caso puede permitir convertir al urbanismo en una suerte de planeamiento territorial sectorial, como algunas tendencias actuales pretenden. Sólo el urbanismo, bien que en la forma coordinada con la ordenación territorial prevista en esta ley, puede vincular el suelo a los distintos destinos y usos. La confianza de los administrados en el planeamiento municipal debe ser reforzada con la garantía de la responsabilidad patrimonial derivada de la información suministrada por las administraciones públicas en los términos establecidos en el título I.

## V

Regula el título II la clasificación, la calificación y el régimen del suelo en el marco legal existente, con el fin de otorgar seguridad jurídica a la situación que ha generado la actual legislación básica del Estado, que, desde el título competencial de la garantía igualitaria del estatuto de la propiedad urbana, ha impuesto sobre la competencia urbanística exclusiva de las comunidades autónomas una clasificación del suelo en tres categorías: urbano, urbanizable y no urbanizable.

Aunque dicha clasificación resulta un instrumento absolutamente ineficaz de intervención pública en los mercados de suelo, su integración legal en el ordenamiento autonómico clarificará las actuales lagunas, que han generado una gran incertidumbre jurisprudencial en relación con los derechos y deberes de los propietarios del suelo, especialmente en lo referente a la consolidación del suelo por la urbanización.

Obviamente, ya no será la clasificación por sí sola, sino la calificación y la programación del suelo, mediante su sometimiento a actuaciones integradas o aisladas, el principal instrumento que determinará la secuencia de transformación urbanística del mismo. Se garantiza así, además, la real concurrencia de la capacidad inversora que se precisa para cumplir los mandatos del planificador y la participación de la comunidad en las plusvalías que dicha transformación produzca.

go. Horretarako, auzi-bidean guztiz kontrolatuko da, ekintza publikoaren bidez (hori ere aitortua izan da), interes hori badagoela; lurzorua eraldatzeko eta erabiltzeko ekintza guztiek ingurumenarekiko eramangarriak izatea bermatuko da eta herritarrek parte hartzea ere bermatuko da.

Halaber, titulu berean garrantzia eta zentralitatea ezartzen da, hain zuzen ere ondorio bererako, hau da, herritarrek udaleko hirigintza-plangintzari buruzko informazioa izateko duten eskubidea bermatzeko. Lurralde-plangintzari garrantzia eta nagusitasuna aitortzen bazaio ere, horrek ezin du inola ere hirigintza nolabaiteko lurraldearen arloko plangintza bihurtu, gaur egungo zenbait joerek nahi duten bezala. Hirigintza da lurzorua xede eta erabilera ezberdinetara lotu dezakeen bakarra; hori bai, lurraldearen antolamenduarekin koordinatuta, lege honetan xedatzen den bezala. Administratuek udal-plangintzan duten konfiantza indartu egin behar da, eta, horretarako, herri-administrazioek emandako informazioaren ondoriozko ondare-erantzukizunaren bermea eskaini behar da, I. tituluak ezartzen duen moduan.

## V

Bestalde, II. tituluak lurzoruaren sailkapena, kalifikazioa eta araubidea erregulatzen du, gaur egun dagoen lege-esparruan, Estatuaren gaur egungo oinarriko legeriak sorrarazi duen egoerari segurtasun juridikoa emate aldera. Izan ere, legeria horrek, hiri-jabetzaren estatutuaren berdintasunezko bermearen eskumenetik bertatik, lurzorua sailkatzeko hiru kategoriatan inposatu baitzkie autonomia-erkidegoen hirigintzako eskumen esklusiboari: hiri-lurzorua, lurzoru urbanizagarria eta lurzoru urbanizaezina.

